



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 2a

134. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko

azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea". Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popu-

larra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu zuten, eta 2014ko urriaren 24ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi

Leuza García jaunek aurkeztu zuten, eta 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea." Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Aipatu proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2014ko abenduaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu zuten, eta 2014ko urriaren 24ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzko Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2014ko abenduaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Socialistas de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu zuten, eta 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2014ko abenduaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera